

ABERRI EGUNA 2020. ADIERAZPENA

Igandean ospatuko dugun aurtengo Aberri Eguna egoera oso berezian datorkigu, konfinamendu betean aurkitzen da euskal jendartea eta honez gero Euskal Herriaren luze zabalean bere arrastorik gordinena ezagutzeko parada eduki dugu gaitz hau bitarteko zendu diren mila inguru herritarrengan eta gaitzak jota dauden milaka horiengan. Mundu mailako, krisi humanitario honek, osasun arloko ondorioez gain, ustekabeko ondorioak izango ditu alor guztietan. Zaila da aurreikustea zein ondorio izango dituen gure bizimoduan eta ohituretan, edo orain arte ezagutzen ditugun politika egiteko moduetan, baina ziur gaude izango dituela.

Ama lurraren jasagarritasuna eta gizaki orenen bizitza duina eta zorientasuna ere mundu mailako lehentasun bilakatu behar honen baitan ulertzen dugu gure aberriak hartu behar duen itxura. Euskal Herria munduak zazpi lurralde hauetan hartzen duen izena da eta inoiz baino beharrezkoagoa Euskal Herriaren aitortza defendatzen dugunon aldetik oraindik aitortu gabeko herri txiki honek munduan jokatu duen papera zein izan behar den hausnartzea; nazioa aitortzea ez da soilik esparru politikoan gauzatu beharreko helburua, nazio izaera gero eta gehiago lotzen da komunitate garapenarekin eta honen jasagarritasunarekin, autoeraketa eta dinamika sozial eraldatzaileen arteko lankidetzarekin, nortasuna eta aniztasuna bateratzearekin. Eskubide oinarritzkoen bermea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea da nazio eraikuntzaren oinarria. Eskubide oinarritzkoen bermea, pertsonen arteko berdintasuna eta elkarrenganako errespetua sustatzen dituen komunitatea aldarrikatu nahi dugu 2020ko Aberri Egun berezi honetan.

Erabaki guneak zenbat eta hurbilago egon erabakiak gauzatu beharko diren lurraldeetatik, orduan eta eraginkortasun handiagoz erantzuten zaie egoera zailei. Zer izan behar garen erabaki nahi dugun bezala, gure aldameneko herrialdeekin izan beharreko harremanak erabaki nahi dugun bezala, krisi honetatik nola atera eta utziko dituen ondorio lazgarriei erantzuteko ahalmen politikoa ere aldarrikatzen dugu. Bat egiten dugu herri honen sen demokratikoarekin.

Elkarlanean aritzeko garaia da, batera, auzolanean aritzeko garaia. Pasarte ilun hau atzean utzi eta gure herriarentzat eta herritarrentzat etorkizun hobe bat xede lanean hasteko prestutasun osoa gordetzen dugu. Horregatik, Aberri Egun hau egoerak eskaintzen dituen aukera urriak baliatuz,

Goizuetako Udalak:

- I.- Adierazten du doluminak helarazten dizkiela senitartean edo lagunartean galera pertsonalak izan dituzten herritarrei
- II.- Eskertza mezua helarazten die osasun eta zaintza arloko langileei eta egoera honetan beren onena ematen dabiltzan herritar guztiei
- III.- Nafarroako ikurra jarriko du masta erdian Aberri Egunean Udaletxeko balkoian.

Eta dei egiten die herritarrei

- I.- Eguerdiko 12:30ean minutu bateko isilunearekin dolua parteka dezatela krisi honetan beren hurbilekoak galdu dituzten eta nahi bezala agurtu ezin izan diren ehunka familiekin.
- II.- Nafarroako bandera eta/edo Ikurriña jarri dezaten etxeetako balkoietan.
- III.- Aberri Egunean eragile ezberdinek deitutako ekimenetan parte har dezaten.